

ARABAKO ERAKUNDEETAN IZENPETUTAKO ADIERAZPENETIK EUREN SINADURA KENDU DUTE EHKO ORDEZKARIEK

«Biolentzia guztiak aintzat hartzen ez dituen agiri bat sinatzea akatsa izan zen», dio EHk

■ Indarkeriaren erabilera biolentzia guztiak aintzat izan gabe salatzea «hutsegitea» dela aitortu dute zinegotziek eta biltzarkideek

■ Elkarrizketaren bideari heltzeko borondatea erakutsi du koalizioak, baina argi utzi du ez duela «aurreko baldintzarik» nahi

■ Biolentzia «mota guztiak» desager daitezzen ahaleginak egingo dituztela azpimarratu du Iñaki Ruiz de Pinedo zinegotziak

Felix Iriarte / Gasteiz

ARABAKO EHk aitortu du ez zuela zuzen jokatu pasa den asteartean beste alderdiekin batera adierazpen instituzionala izenpetu zuenean. «Akats bat izan zen», adierazi zuen atzo Iñaki Ruiz de Pinedo zinegotziak, eta berretsi egin zuen Iñaki Usategi biltzarkideak.

Adierazpen instituzionala Gasteizko Udalak bere egin zuen hurrengo egunean, EHren oniritziarekin gainera, baina atzo atzera egin zuen koalizioak.

Pentsatzen dute ezin daitekeela biolentziaren erabilera salatu testuingurua aintzat izan gabe, hau da biolentzia guztiak kontuan izan behar direla uste dute. «Gaitzespena egin genuen terminoetan egitea, testuingurua aintzat hartu gabe, akats bat da, kondena ezerezan geratzen baitira orokorrean aztertzen ez badira», arrazoindu zuen Gasteizko zinegotziak.

EHk prentsari deitu zion atzo arratsaldean goizean hartutako erabakiaren berri emateko. Ruiz de Pinedok gutun bat helarazi zion Alfon-



JOSEBA OLALDE

Xanti Hernando, Iñaki Ruiz de Pinedo eta Iñaki Usategi, atzo Gasteizen eskaintako prentsurrekoan.

so Alonso Gasteizko alkateari, non jakinarazten zion bezperan emandako sinadura kendu egiten zuela.

EHko ordezkariak sinatutako idatziak honako hau dio: «Aukera politikoaren askatasuna murriztu eta

kikildu nahi duen indarrezko ekinbide politiko oro salatu eta gaitzesten dugu». Puntu horrekin batera beste bi izenpetu zituzten taldeek, bata Jose Luis Añuaren aurkako eraso salatze eta elkartasuna adierazteko, eta beste

bat bakea aldarrikatuz. Taldeen arabera, bakea bakarrik lortuko da «indar politiko guztien garapena aukeren berdintasunean bermatuko duen eskubide demokratikoekin».

Gertatutakoak garbi utziko

luke, EHren iritziz, beste taldeek «baldintzak» jartzen dizkiotela EHri elkarrizketa prozesuari heltzeko. Izan ere, Alfonso Alonso alkateak jakinarazi zuen foro bat eratuko duela alderdi guztiekin bake prozesuaz hitz egiteko.

EHko kideak adierazi zuten ez dela bidezkoa EHri baldintzak jartzea, eta, gainera, bozeramaile batzorde bati «kategoria» hori ematea ez dela zuzena adierazi zuten.

Hitz egitearen alde azaldu ziren EHko kideak. Beraien ustez, hala ere, hitz egin nahi ez duena PP litzateke. Iñaki Usategi biltzarkideak esan zuen Ramon Rabanera diputatu nagusiak adierazi duela ez duela EHrekin hitz egingo, «adierazpena izenpetu edo ez».

Biolentzia «adierazpen guztiak» desager daitezzen ahalegin guztiak egingo dituztela berretsi zuten Ruiz de Pinedok eta Usategik. «Gu prest gaude hitz egiteko edozein lekutan eta edozein orduan, baina aurre baldintzarik jarri gabe; izan ere, gure helburua biolentzia guztiak desagertaraztea besterik ez da», esan zuen Usategik.

erreakzioak

Gorka Knörr • EAko
Europarlamentaria

«Halako adierazpenen inguruan soinu gutxiago atera behar da»

► «Gauzak erraztu egin behar dira, eta lehengo egunean sinatu zen adierazpena bezalakoen inguruan soinu gutxiago egin beharko genuke», adierazi zuen atzo Knörrrek EHren erabakiaren berri jakin bezain laister. Hala ere, EHren jarrera gaitzetsi zuen. «Otegi ulertu beharko luke gauzak sinpleagoak direla, eta are gehiago eszenatoki berri batean gaudela esaten duenean».

Nicolas Redondo Terreros •

PSE-EEko idazkari nagusia

«HBko buruzagitzak zilegitasuna kendu die idatzia sinatu zutenei»

► Redondo Terrerosak atzo adierazi zuenez, HBko buruzagitzak «zilegita-

sun osoa kendu die» Arabako Batzar Nagusietan eta Gasteizko Udalean indarkeriari buruzko adierazpen sinatu zutenei, haren aginduz kendu baitute euren sinadura. HBn bi sektore daudela esan zuen, eta horietako bat «helburu politikoak lortzeko indarkeriari uko egin» diotenena da. Esan zuenez, «PSE-EEK besoak zabaltzen dizkie HBn arau demokratikoak onartu nahi dituztenei».

Leopoldo Barreda • Bizkaiko PPko lehendakaria

«Bake prozesuari trabak jartzen jarraitzeko borondatea erakusten du honek»

► EHko batzarkide eta zinegotziek indarkeriari buruzko adierazpenetatik euren sinadura kentzeak «bake prozesuari trabak jartzen jarraitzeko borondate erakusten du, borondate demokratiko falta argia da eta kale te-

rrorismoari babesa ematen dio», adierazi zuen atzo Leopoldo Barreda PPko buruzagiak. Arabako EHko ordezkariak euren iritzia aldatu badute, «HBko makromahai nazionalak ordenarako deia egin eta lerroak estutzeko agindua eman» dielako izan da. Barredak azaldu zuenez, erabaki berri horren atzean «gizartearen eskaerari erantzuteko gaitasun eza» izkutatzen da.

Pablo Mosquera • UAko idazkari nagusia

«Normala da, jende horri kosta egiten zaio errealitate demokratikoa bereganatzea»

► Pablo Mosqueraren iritziz «normala» da EHko kideak euren sinadura kentzea. «ENAMen mundua, izan ere, oso banatuta dago eta betidanik indarkeriaren dinamikan jokatu dute. Normala da, jende honi kosta egiten

zaio egungo errealitate demokratikoa bereganatzea», adierazi zuen UAko idazkari nagusiak. Gertatutakoa «HBko barne eztabaidaren ondorio» dela esan zuen, «normaltasunera itzuli nahi dutenen eta fundamentalismoarekin jarraitu nahi dutenen arteko» eztabaidaren ondorio. Otegi «egoera kontrolatzeko» zailtasuna badu bere laguntza duela esan zuen.

Iñaki Anasagasti • EAJko diputatua

«Ez da atzerapausoa»

► Iñaki Anasagastiren iritziz, EHren erabakia «ez da atzera pauso bat». «EHk esan duen bakarra indarkeria guztietaz hitz egin behar dela da». Nabarmendu zuen EH ez dela «indar politiko arrunt bat», eta «oso garrantzitsua» dela «politika egitea eta erakundeetan parte hartzea, indarkeria gaitzesteaz gain». Anasagastirentzat, EHk «lehen urratsa eman du».